



SAILBURUA
LA CONSEJERA

AGINDUA, 2018KO ABENDUAREN 20KOA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA. HONEN BIDEZ, BIZKAIAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA JASOTZEN DUEN KOMUNITATEARI FUNTSEZKO ZERBITZUAK EMATEN JARRAITZEA BERMATZEN DUEN 2018KO URRIAREN 23KO AGINDUA ALDATZEN DA.

2018ko abenduaren 10ean, CCOO sindikatuak idazki bat aurkeztu zuen Lan eta Gizarte Segurantzako Ordezkaritzan, 2018ko abenduaren 24rako eta 30erako grebarako deialdia egiten zuena, 00:00etatik 24:00etara, bat etorrita Bizkaiko etxez etxe laguntza-zerbitzuaren sektoreak berak aurrez egindako deialdiko bi egunekin.

Hauek dira grebaren helburuak, deialdia egin dutenen arabera:

1. Etxez etxe laguntza-zerbitzuaren sektoreko langileen errebindikazioak beteko dituen hitzarmen kolektiboaren proposamen bat lortzea.
2. Lan-merkatuan emakumeek jasaten dituzten desparekotasuna eta diskriminazioa gaitzestea, eta, zehazki, soldata-arraila gaitzestea.
3. Emakumeen langabeziaren kronifikazioa gaitzestea.
4. Irmo gaitzestea, batetik, indarkeria matxista, eta, bestetik, arlo guztietan genero-indarkeriaren biktimak babesteko neurri nahikorik ez egotea, bereziki lan-arloan.

2018ko urriaren 23an, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuak agindu bat eman zuen, Bizkaian etxez etxe laguntza zerbitzua jasotzen duen komunitateari funtsezko zerbitzuak ematen jarraitzea bermatzeko 34 udaletan, ELA, LAB eta LSB-USO erakunde sindikalek 2018ko urriaren 26an eta 29an, 2018ko azaroaren 22an, 23an, 26an eta 27an eta 2018ko abenduaren 24an, 26a, 27an, 28an, 29an, 30ean eta 31n deituriko lanaldi osoko greban.

Deialdi berriaren hartzailea sektore bera denez –hau da, Bizkaiko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua–, eta deialdiak bat egiten duenez aurrekoarekin bi egunetan –abenduaren 24an eta 31n–, ez da beharrezkoa aldaketarik egitea aipaturiko 2018ko urriaren 23ko Agindu horretan, salbu eta greba-deialdi berria txertatzea...

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16 artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzerazineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubidea baliatzen dutenean



autonomia-erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko beharrezko diren neurriak ezartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzak eskuordetuta, honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Aldatzea Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2018ko urriaren 23ko Aginduaren xedapen-zatia, lehenengo puntuaren idazpuruan, CCOO sindikatuak Bizkaiko etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren sektorean 2018ko abenduaren 24rako eta 31rako egin duen greba-deialdia txertatzeko.

BIGARRENA.- Indarrean atxikitzea Bizkaian etxez etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duen komunitateari funtsezko zerbitzuak ematen jarraitzea bermatzen duen Lan eta Justiziako sailburuaren 2018ko urriaren 23ko Agindua.

HIRUGARRENA.- Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

LAUGARRENA.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren dagokion Salan, Ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedaturikoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 20a



MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ
LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA